

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URIZAHARREKO UDALA

#### **Behin-behineko onespena ematea hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketari**

Udalbatzak, 2021eko abenduaren 28ko ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onespena ematea hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketari.

Espedientea udal idazkaritzan egongo da ikusgai hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera kontatuta, epe horretan interesa dutenek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erabaki hau behin betikotzat joko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamazioren bat badago, beste erabaki bat hartuko da horren gainean.

Argitara ematen da hau, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoa betez.

Urizaharra, 2021eko abenduaren 30a

*Alkatea*

*JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO*